




Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Airez eta penaz

Hirugarren olatuak etxean konfinatzera eramanean dituen kideak gorabehera, ederki pasatu dugu azken aste luzea, leihoak zabal-zabalik, hego haizeak aireztaturiko ikasgeletan. Pena CO₂ neurgailurik ez dugula izan, egunotan kanpokoaren antzekoa bailitzateke fama txarreko gas honen kontzentrazioa, 400 bat ppm-koa (milioi bat partikulako 400 bat). Lanerako atmosfera egokiago bat eskaintzeaz gain, datu honek gelaren aireztapen egokiaren berri emango liguke; gela barruan CO₂z (eta mikroorganismo) beterik botatzen dugun arnasa gelatik irteten ari dela, alegia. Ikerketa batzuek iradokitzen dutenez, 800 ppm-tik behera mantendu beharko litzateke CO₂aren kontzentrazioa aerosolen bidezko kutsatzerik ematen ez dela bermatzeko (500 arnas biziko jardueratan edo ozen hizketan egotekotan). Hain zuzen, “Nature” aldizkarian berretsi berri da aerosolak direla SARS-COV-2 kutsatzeko modu nagusia, baina ez dirudi bitartean oso serio hartzen dugunik neurri hau. Eskuak, maskara, distantzia lelo ere egin ziguten agintariek, baina gero ez dira batere argiak izan aireztapenaren inguruko irizpideak, eta jakina, ez dira espazio eta egoera bakoitzerako estrategia eraginkor bat egiteko nahikoak.

Horregatik, ikerketatxo bat egitera animatu nahi zaituztet lerrootatik: denbora ematen duzuen espazio itxi horren aireztapen estrategia egokia aztertzea, CO₂ neurgailu bat hartuta. Askotarikoak topa ditzakezu merkatuan (bertako produktua ere!), baina infragorriak darabil-



tzatenak omen fidagarrienak. Prezioz igo daitezke, baina kontuan izan ez dugula zertan gela bakoitzean gailu bat instalatu –ez badugu nahi aireztapen sistemarekin automatizatzea, pasa den astean saritua izan den UPNAko Ana Ruiz Ilundain ingeniariak asmatu duen gailuaz, adibidez–, eta bakarrarekin egin dezakegula eraikin osoko azterketa. Espazio bakoitzean, aldagai ezberdinak hartuko ditugu kontuan: jende kopurua, eguraldia (haizea), leiho kopurua, sorturiko korrante mota, eta zenbat denboraz eta zenbatero ezartzen dugun korrante hau. Behin ikerketa eginda, eta badaezpada ere marjina bat emanez, gela horren aireztapen estrategia paneltxo batean ezar liteke eta, jakina, gero bete.

Airez eta penaz egin dut hitz jo-koa, airea ikertzeko proposamenaz gain, hainbat pena aipatu nahi ni-

tuelako hemen. Agintariek penak haien esku dauden gauzak ez egiteko aireratzen dituzten bitartean, batek pena sentitzea baina askoz gehiagorik ezin du egin hainbeste izorratzen ari zaigun errealtatean aldaketa ñimiño bat ere ezin dugunean eragin. Eta egitekotan, hor ditugu zain sirena urdinez datorkigun apisonadoraren penak. Pena horiek eta gure penek geldiarazi ez gaitzaten, errealtatea eraldatzeko gai gara ikasi behar dugu, ekinez. Ikasgelara itzuliz, CO₂a izango da zalantzarik gabe molekularik eza-gunena ikasleen artean, maila eta arlo anitzetan lantzen baita klima aldaketaren larrialdia dela eta. Beraz, ze *hobia* ce o *bia* :) neurtuz errealtatea hobetzeko proiektu bat egitea baino? Ez dira beharbada, CO₂ eta pena mailak berehalakoan apalduko, baina etorkizunean aire berriak izaten lagunduko du ziur! •